

Biopsiarik ez egiteko era

Israelgo Rehovot-eko Weizmann Institutuko Hadassa Degani zientzialariak, erazketarik egin gabe tumoreak onberak diren edo ez bereizteko sistema prestatu du. Kontraste bat injektatu eta organismoan segimendua egiten du erresonantzia magnetikoaren irudien zein analisi informatikoaren bidez. Biopsia traumatikoak egin beharrik ez izatea da sistema honen abantaila nagusia. Bularrean tumorea zuten 18 emakumeri arrakastaz aplikatu zaien metodo hau. Zortzik fibroadenoma zuten eta beste hamarrek minbizia.

Botika berria parkinsonaren kontra

Parkinsonen gaixotasunak jotako bizi-baldintzak hobetzea eta gaitzaren hedapena geldiaraztea dira Hebreako Unibertsitateko ikertzaileek aurkitu berri duten botikaren egiteko nagusiak. *L-Dopa Ethyl Ester*, horixe da medikamentuaren izena eta oraindik laborategi-fasean dago. Gaur egun gaitz honen kontra erabiltzen den *L-Dopa* izeneko botikaren ordekoa izan daitekeela uste dute ikertzaileek,

Artxibokoa



Parkinsonen gaixotasunak jotako bizi-baldintzak hobetzea eta gaitzaren hedapena geldiaraztea dira *L-Dopa Ethyl Ester* medikamentuaren egiteko nagusiak.

honek sortzen dituen arazoak saihestuko dituen. Parkinsonen gaixotasun garunean dopamina-eskasia dagoenean agertzen da eta bere ezaugarri nagusiak dardara eta muskuluen zurruntasuna dira. Populazioaren % 1-2ri eragiten diola uste da. Gaur-gaurkoz, *L-Dopa* da dagoen tratamendu bakarra, baina bi eragozpen nabarmen ditu: batetik, ezin da zuzenean odolean injektatu eta, bestetik, lau edo bost urteko tratamendua eta gero, bere eragina desagertu egiten da. Botika berria *L-Dopa* ren eraginkortasuna agortutakoan ere erabili ahal izango da eta odolean zuzenean injektatu ahal izango da.

Hotzeria eta lagunartea

Hotzeria edo katarroaren kontrako sistema egokia da jendearekin ha-

Artxibokoa



Lagunartean egotea onuragarria izan daiteke gero mukizapia gutxiago erabiltzeko.

nartean gehienez hiritan egondakoen artean, ordea, % 62k harrapatu zuen katarroa. Zure lagun, auzotar, lankide, emazte, senar, aitaginarrereba, amaginarreba eta abarrekin lagunartean egotea onuragarria izan daiteke gero mukizapia gutxiago erabiltzeko.

Tetraplegikoentzako dispositibo berria

EBBetako "Food and Drug Administration" erakundeak —osasun-politikaz arduratzen denak, hain zuzen— argi berdea eman dio *freehand* izeneko dispositibo elektronikoiari. Alde ederra nabarituko dute hemendik aurrera gaixo tetraplegikoek, eskuak erabili ahal izateko modua eskaintzen baitu sistema berriak. Munduan ez da horrelakorik merkaturatu orain arte,



ez bederen, administrazioak onetsita. Mugimendua eragiten duten kinadak sorrarazten ditu dispositibo berriak. Larruzalaren azpian 5 cm-ko luzera duen gailu bat kokatzen da, mikroprozesadore txiki bat eta funtzionatzeko behar duen bateria dituen. Gaixoak eskua mugitu nahi duenean, sorbaldaren bidez sortzen ditu mugimenduak (gora edo behera, ezker edo eskuinera) eta ordenadore batean jasotzen dira bertatik, ondoren, dispositiboak jasoko dituen uhin elektromagnetikoak bidertzen direlarik; uhinok, izan ere, kinada elektriko bihurtzen dira eta mugimendua eragiten dute. Bistan denez, sorbalda mugitu ahal duten gaixoek baino ezingo dute dispositibo berriaz balliatu. Gainera, bateraezintasunak ere sortzen ditu aparatuak, taupada-markagailuekin, esate baterako.

Artxibokoa



Hiru dimentsiotan lan egiteko softwareak erakusten duenez, eremu elektromagnetikoak desberdinak dira telefonoaren posizioaren arabera.

magnetikoak hiru dimentsiotan simula daitezke. Ondorioz, "arrisku" gutxiagoko aparatuak diseinatu ahal izango dira. Izan ere, oraindik zalantzak daude telefono horiek kalterik gabekoak diren edo ez erabakitzeke. Australiako Adelaideko ospitalean sistema linfatikoko minbizia izateko joera zuten sagu transgeniko batzuekin proba egin dute. Telefono eramangarriek dituzten irrati-maiztasuneko uhinetan eduki dira eta erdiak gaixotu egin dira beren joerari uhinek bultzatuta. Ikusi egin beharko da minbizirako joerarik ez duten saguekin uhinek eragin berdina duten.

Artxibokoa



Argaltzen duen adrenalina? Estatu Batuetako Pfizer laborategietako kimikariek prestatu duten CP-331679 molekulak adipozitoiei baino ez dio eragiten eta arratoiengan egindako saiakuntzetan emaitzak ikusgarriak izan dira. Halere, gizakiengan izango duen eragina ikusteko dago.

Argaltzen duen adrenalina?

Gizen daudeneztzat gorputza argaltzeko gaur egun gimnasia egitea eta dieta egitea bide egokiak dira, baina aldi berean bide neketuak ere badira eta batek baino gehiagok eskertuko luke helburu horretarako bide erosagoa asmatzea. Pilulen bidezkoa ere bada, baina eragin kaltegarriak ditu eta oso kasu gutxitan besterik ez dira erabili behar. Dena den, egoera hori aldatuko ote da Estatu Batuetan Pfizer laborategiek prestatu duten CP-331679 molekularik? Emaitza nolakoa izango den esateko goizegi da. Izan ere, oraindik gizakiarengan probak egiten ez dira hasi. Hala ere, adrenalinarekin antzeko molekula honen bidea oso interesgarria da.

Adrenalinak hiru har-tzaile-motarengan eragiten du. Lehenengoa odol-hodietan dago eta zabaldu egiten ditu. Bigarrena bihotzean dago eta honen taupadak bizkortu egiten ditu. Azkena adipozitoetan dago (hau da, koipeak metatzen dituzten zeluletan) eta lipidoak askatzen ditu. Pfizer etxeko kimikariek adipozitoei baino eragiten ez dien molekula prestatu dute. Arratoiengan egindako saiakuntzetan emaitza ikusgarria da. Galtzen duen pisua gizakiarengan asteko kiloak izango litzateke, dietarik eta gimnasiarik egin gabe. Dena den, aldaketa horiek arratoiengan eta gizakiengan berdinak izango ote dira? Ez dago seguru esaterik, zeren arratoiengan askatzen den koipe-mota nagusia gizakiarengan oso gutxi baitago. Laborategi asko ari da bide hau jorratzen, baina oraingoz bere tamainan gimnasia egitea da osasuntsuena.



Telefono eramangarrien arriskuak neurtzen

Alemaniko Darmstadt-en Goi Mailako Eskola Teknikoan elektronika eta informatikako irakasle gisa diharduen Thomas Weiland irakasleak ordenadore-programa berezia prestatu du. Horri esker telefono eramangarrien eremu elektro-